



Juan M^a Zubeldia Arrieta
Zerbitzu zuzendaria
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
Herri Administrazio eta Justizia Saila

Jaun hori,

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzeko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan abenduaren 10ean, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Zerbitzu Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzeko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Konstituzioaren 103.1 artikulua arabera, herri administrazioak legeari eta zuzenbideari men eginez jardun behar du, eta honek zerbitzu juridiko egokiak izatea eskatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du bere autogobernu erakundeentzako antolaketa, araubidea eta jardura gaietan, Estatutuko arauen esparruan (10.2 artikulua). Halaber, bakarreko eskumena du autonomia erkidegoaren sektore publikoaren gainean (10.24 artikulua).

Eskumen horien babesean onartu zen ekainaren 26ko 7/1986 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoa epaiketetan ordezkatzeari eta defendatzeari buruzkoa.

Orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren antolaketa arautuko da.

Aurreproiektuaren I. kapituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (1-4 artikulua), II. kapituluan aholkularitza juridikoaren eginkizuna jorratzen da (5-6 artikulua), III. kapituluan auzietan jardutea (7-14 artikulua), eta IV. kapituluan Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusia eta bere Antolamendua (15-17 artikulua). Azkenik xedapen gehigarria, xedapen iragankorra, Euskal Autonomia Erkidegoa epaiketetan ordezkatzeari eta defendatzeari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legea eta lege berriarekin talka egiten duten maila bereko eta apalagoko xedapenak indarrik gabe lagako dituen xedapen indargabetzailea, eta bi azken xedapen daude.

Beraz, aipatutako Lege Aurreproiektua aztertuta, euskararen erabileraren gaineko eraginik ez duela izango adierazten dut.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko abenduaren 15ean

Ángel Lobera Revilla
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria